

ANTZINAKO ERRENERIA XIV. MENDETIK XVI.ERA, ZORTZIKO TXIKIAN

Julian Albistur Aranburu

Egungo Erreneria, orduko «Villanueva de Oiarso» 1320. urtean sortu zenez, 700 urte betetzear dago, hain zuzen 2020. urtean beteko ditu. Bertso-sorta honetan 300 urte inguruko historia laburbiltzen da (1300.etik 1600.era). XIV. eta XV. mendeak (Erdi Aroa) XVI. arekin (Aro Modernoa) uztartuz. Hurrengo 400 urteak beste baterako geldituko dira.

Doinua: «Orain berrogei urte» (Pello Zabaleta, 1946. Erreneria)

1
Oiarzo haranean
sakabanaketa:
Altzibar, Elizalde,
Iturriotz eta
hemen itsasertzean
soilik Orereta;
gurdibidez lotuak
naturaz beteta.

2
Orain zazpiehun urte
Orereta zena,
herrixkatik hirira
aldatuz izena:
«Villanueva de Oiarso»
omen zen zuzena,
gero Erreneriak
zuen euskal sena.

3
Gaztelako Errege
«Alfontso» izenez,
«Hamaikagarrena» zen
sortzaile izanez;
horrelaxe aipatzen
da hiri-gutunez,
Donostia hiriko
Forua emanaz.

4
Mila hirurehun eta
hogeigarrean,
hirigintzari ekin
gune zaharrean:
lau kale eraikita
hasi aurrean,
hiribildua sortuz
harresi barnean.

5
Hor diraute Morrontxok
eta Torrekuak,
harresi haren zati:
zainketa lekuak.
Goiko kalean bertan
daude kokatuak,
gerrateak jasanda
zutik geratuak.

6
Hurrengo menderako
jendea ugaltu,
hiru kale gehiturik
hiria zabaldu;
xarmangarria denez
nahi nuke azaldu:
Erdi Aroko kutsu
hura ez du galdu.

7
Itsas merkataritzak
zekarren onura,
gaurko Foru plazara
iritsirik ura;
errentak ordaintzeko
portua zen hura:
Erregea gizenduz
oraingo modura.

8
Kanpotik erasoak
eta iskanbila;
herritarrak biltzeko
irtenbide bila,
Udaletxerik gabe
eraikin isila:
antzinako elizan
funtzio zibila.

9
Burdinoletan xede
hau zuten, jakina:
minerala urtuta
bihurtu burdina.
Txondor, egur-ikatza
eta ikazkina,
burdin ona lortzeko
lantegi zikina.

10
«Burdinolen Forua»
lortu zuten gero,
baso amankomunak
murriztuz urtero.
Olagizonek burdin
gehiago astero:
Fanderian, Pontikan
poltsikoak bero.

11
Ontzioletan berriz
galeoi, goleta,
eraikitzen trebeak
omen ziren eta;
Itsas Armadak hemen
sari erosketa,
liburuetan daude
datuak gordeta.

12
Merkataritzarako
nahiz baleontzia,
ekonomian denak
zuen garrantzia;
garatua zeukaten
itsas zientzia,
Albaolak jaso du
orain herentzia.